

ZER DA KULTURARTEKO HEZKUNTZA?

Ikasle **guztiek** mundu plural honetan jarrera positiboaz bizitzeko **garatu behar dituzten** gaitasun eta jarreraren multzoa: horixe da kulturarteko hezkuntza.


Gure herriko dibertsitate kulturalaren kausa, ia modu eksklusiboan, migrazioa da. Horregatik, uste izaten da, oker uste ere, kulturarteko hezkuntza lantzea ikasle immigranteekin lan egitea dela. **Kulturarteko hezkuntza den-denen kontua da.**



Ikasgelan sorteri eta ezaugarri desberdinetako pertsonak edukitzea baino gehiago da



Besteen kulturaz zer edo zer jakitea baino gehiago da (baina besteen bizimoduaz –kulturaz edo beste zernahiz– jakitea zeinen garrantzitsua den ahaztu gabe)



Dibertsitatea gizarte-bazterketarako aitzakia eta zuribide gisa erabiltzeari uztea da kontua, eta ez dibertsitate kulturalaren aurrean toleranteagoak nola izan ikastea



Kulturarteko hezkuntzaren xedea EZ da dibertsitatea errespetatzea edo tolerantzia gurtzea, baizik eta denok ere, aldeak alde, berdinak garelara **ohartzea**.

ZERK DUTE GARRANTZI HANDIAGOA ESKOLAN ARRAKASTA IZATEKO: ALDERDI KULTURALEK EDO ALDERDI EKONOMIKOEK?

ABANTAILA-EGOERAN DAUDENAK

Eskolarekin loturirik handiena duten eta seme-alabei beren eskola-ibilbidean laguntzeko baliabide kultural eta ekonomiko gehien dituzten gurasoen seme-alabak.

DESABANTAILA-EGOERAN DAUDENAK

Egoera sozioekonomikoa da desabantaila-faktore nagusia.



MAILA SOZIOEKONOMIKOA



Desabantaila-egoeran dauden ikasleek ez dizkiete beren emaitzak **kutsatzen** egoera sozioekonomiko hobean dauden ikasleei. Baina ikastetxe batean ikasle guztiak edo gehienak egoera kaskarrean badaude, desabantaila-egoeran dauden neska-mutilek emaitza okerragoak izaten dituzte.

NONGOAK DIRA JATORRI ATZERRITARREKO IKASLEAK?

Askotariko identitate bat garatzeak aukera ematen die gazteei aldi berean *hemengo* eta *hango* direla sentitzeko, beren sorterrria edo familiarena dela-eta **–bi sentimenduak era askotara eta modu desberdinean esperimendu baitaitezke–**.

“Eta zu, nongoa zara?” **galderari erantzuteko modu bat baino gehiago daude**; izan ere, kontua da identitateetako bat bakarrik aukeratu behar ez izatea, gainerakoei traizio egiten ari direla sentitu gabe..

Hezkuntza-komunitatea kontu hauen guztien garrantziaz jabetzen bada, **eskolak ere bere aletxoak jar dezake inortxo ere deserroturik eta gaizki ez sentitzeko**. Horretarako, oso garrantzitsua da:

Ikasleak atzerritarren balira bezala **EZ** tratatzea

Ohartzea irakasleen funtzioa **EZ** dela ikasleen jatorrizko kultura irakastea edo sustatzea, horrek, estereotipoak zabaltzeaz batera, ikasle horiei “besteak” direla sentiaraziko die eta.



Ohartzea **HAUXE DELA** irakasleen funtzioa: ikasleek beren egunerokotasuneko alderdi guztiak –kulturekin loturik egon edo ez– naturaltasunez bizitzeko moduko egoerak erabiltzea, horretarako egokienak diren zirkunstantziak ballatuz eta aparteko jarduerarik asmatzen ibili gabe.

KUSKUSAREN PEDAGOGIA

Frantzian, **kuskusaren pedagogia** deritzen ikasleen dibertsitatea modu exotiko eta azalekoan tratatzeko joerari




Adibideak: eskolako tailer edo festa batean, atzerritik etorritako pertsonen **beren etniaren arabera** jokatzeko eskatzea.

Bertako pertsonen edo herrialde aberatsetatik etorritakoei ez zaie performance etnikorik egiteko eskatzen (horregatik, hain zuzen, lasai asko eraman ditzakete eskolako festara supermerkatuan erositako patata frijituak).

MAROKO



SAHARA



SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKA



BERTAKOAK



Adibide horiek hauxe transmititzen dute:



Pertsona migratzaileak etnikoak direla, eta, beraz, beren sorterrrian tipikoak diren gauzak egin behar dituztela



Bertako pertsonak, berriz, zera direla... normalak?